

Museoen nazioarteko eguna ospatuko dute Mirandaola parkean



Euskal Burdinaren Museora sartzea doan izango da igandean. LENBUR

Goierri | Lenbur Fundazioak kudeatzen dituen guneetan Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko dute igandean

MIRIAM LUKI

Datorren igandean, maiatzak 18, Museoen Nazioarteko Eguna da eta Lenbur Fundazioak kudeatzen dituen gune guztietan data hori ospatuko dute, aurretik *Museoak gizar te aldaketaren eta garapenaren sustatzaile* lelopean

Lenbur fundazioak antolatutako ekitaldi berezien artean, Euskal Burdinaren Museoako ateak doan irekiko dituzten igandean Bestetik, sei urtetik hamabira bitarteko haurrek tailer didaktiko batean parte hartuko aukera ere izango dute. Taileraren helburua burdinolaren funtzionamendua eta oligizonek Erdi Aroan zuten lan egiteko modua hobeto ulertaraztea da. Museoan papirreko txapa bat egiteko aukera izango dute, norberak nahiduten marrazkiarekin. Ekitaldi guztiak igande goizean zehar izango dituzte.

Artzaintzaren Ekomuseoa

Legazpiko Telleriarte auzoan da goen Artzaintzaren Ekomuseoa, 11:30ean gazta zaharra eta berria dastatzeko aukera eskainiko du

sagardoz lagunduta. Bestalde, Urretxundagoen Aikur erremuseoa ere doan ikusi ahal da. Goiz guztian kandelak egiteko tailerra ere eskainiko dute bisitariarentzat. Argizari naturalarekin kandelak egiteko aukera izango da, eta baita «erleen mundu ezkutua» ezagutzeko parada ere.


Jarduerci buruzko informazio gehiago eskuratzeko edota erreserbak egiteko Mirandaolako Urola Garaia eskualdeko turismo bulegora (943 73 04 28) hots egin daiteke.

Mineralen eta fosilen museoa

Urretxuko Mineralen eta Fosilen museoak ere bat egingo du nazioarteko deiarekin. Igandean ez dute sarretarik kobratuko 60.000 urteko dinosauro bati erakutsiko dute, Elgoibarko Javier Vargasekutzia.

Igandean gain, larunbatean ere bisita gidatuak doan eskainiko dituzte Urretxuko museoan, 17:30ean euskara eta 18:30ean erdaraz. Igandean 11:30ean euskara eta 12:30ean erdaraz emango dituzte azalpenak.

Bien bitartean, martxan da *Bitarteaneko 29. dena museo ikusgarria* ekimena. Heldu eta umeei parte hartu dezakete Museoaren Lagunek eta Bitartean elkarrekin denburiak bigarren urte ipinitako jokoa Txartelak dendetan eta ikasle txetan jaso daitezke jada.



Teknologia barnetegia Santikutzen

URRETXU - Santikutz nekazal turismo etxeak teknologia barnetegia hartu du egunotan, SPRI-k, Euskadiko Internet Elkarteak eta KZguneak antolatuta. Barnetegian berrogeita hamabost urtetik gorako hamabita-

gunek hartu dute parte. Helburuak teknologia berrien baliabideak gerturatzeta eta sarearen erabilzaileren adin tartea zabaltzea ziren; 55 urtetik gorakoek gazteek baino gutxiago erabiltzen dute internet. M. LUKI

'Gelditour'-en kamioiak gaur AHTri buruzko informazioa ekarriko du

URRETXU-ZUMARRAGA | Kamioia herri batetik bestera darabiltzite. Elkarlanak bestelako ekitaldiak ere egingo ditu

M. LUKI

AHT Gelditour! Elkarlanak antolatuta, gaur *Gelditour* biherriak Urretxuan eta Zumarragan geldialdia egingo du. Azpiegitura egitearen konturako argudioak zabalduko ditu, kamioi baten bidez.

Euskal Herriko hainbat herritarik igarotzen ari den autobus informazioaren helburua Abiadura Handiko Trenari buruzko «informazio errealak» zabaltzea da, «inposaketa eta txikizkia salatzearen jain batera».

Kamioiak AHTri buruzko informazioa, bideoak eta panelak dituen herritarrek ikusi ditzaten.



AHT Gelditour kideak. I. LUZURJAGA

Bestetik AHTren kontrako taldeak beste zenbait jarduerak prestatu ditu: 18:00etan bideo emanaldia, 19:00etan herritarren barrena bizikleta marxa eta 20:00etan elkarretaraztea. Ekitaldi horiek guztiak Kalebarren Areizaga plazan egingo dituzte.

Laburrak

Jaien balorazioa egingo du batzordeak kultur etxean

LEGAZPI - Bihar anatsaldeko zazpitan Legazpiko Jai Batzordeak bilera egingo du, kultur etxean. Amaitu berri diren Santikutz jaien balorazioa egingo dute.

Legazpi-Segura mendia martxarako izen-ematea

LEGAZPI - Datorren igandean egingo dute Legazpitik Segurara antzinarako bideetatik barrena mendia marxa. *Legazpi, 400 urtez aske* egitasmoaren barruan Izadi-Zaleak eta Burdinolak antolatutako ekitaldia da. Aste honetan zehar eskolaumeek izena eman ahal izango dute ikastetxean.

Oinak nola zaindu azalduko dute gaur Gizarte Zentroan

LEGAZPI - Gaur arratsaldeko seietan *Oinak nola zaindu, oinetan pentsa* dezagun hitzaldia emango du Jazmina Nuñez erizainak, Legazpiko Gizarte Zentroan. Zentroak eta Aulas Kutxak antolatuta dute.

Goierriko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • goierri@goierriko-hitza.info / Tel: 943-16 00 56